

helkarrekin



Gaurko alean

Eskuartearen Hekimen elkartearen buletinaren lehen alea duzue. Bere bitartez, elkarteak euskarazko komunikabideen sektorea osatzen duten langile guztiengana maiztasunez iritsi nahi du, Hekimenek egindakoaren berri izan dezazuen.

Lehen ale honetan, 2021 urteko azken hilabeteetan egindako lanen berri jasoko duzue. Ikusiko duzueenez bi gai nagusi lantzen aritu gara, baina bestelako gaiak ere landu ditugu. Alde batetik, dirulaguntza deialdi berriaren inguruko lanketak ahalegin handia eskatu du eta bestetik, Oronako jardunaldiak eta Zabala aholkularitzakoekin egin zen tailerrak berrikuntzaren beharra erdigunean jarri dute. Horrez gain, Euskal Hedabideen Mahaian kode deontologikoa edota publizitate instituzionala bezalako gaiak lantzen aritu gara eta bestelako lanketa batzuk ere egin dira, Jauralaritzaren Covid laguntzen ingurukoa esaterako.

Laburrago bada ere, aurrekoekin batera ondorengo gaiak ere jaso ditugu: audientziak neurtzeko sistema, finantziario aukera berriak, Espainiako ikus-entzunezkoen lege berria eta Pantailak euskaraz ekimena. Gai horien inguruan elkarteak emandako pausoen berri ondorengo lerroetan eskura dezakezue.

Dirulaguntza deialdia

Azken hilabete hauetan elkarte-tik Euskal Hedabideen Mahaian dirulaguntza deialdi berria hobetzeko egin den ahalegina garrantzitsua izan da.

Berrikuntza

Berrikuntzaren eremuan ere pausoak ematen ari gara: Oronako jardunaldia, Zabala Aholkularitzakoekin tailerra, Berrikuntza batzordea...

Kode deontologikoa

Kode deontologikoaren azken idatzaldia lantzen aritu gara, bai zuzendaritzan, bai eta EHM-n ere, eta laster behin betikoa prest izango da.

5 milioiko laguntza

Eusko Jauralaritzak Covid-19ak eragindako ondorioak arintzeko komunikabide batzuei emandako laguntzak direla eta lanketa berezi bat egin da.

Publizitatea

Nahi baino mantoago baina gai honekin ere lehen pauso batzuk ematen hasi gara Euskal Hedabideen Mahaian

Laburrean

- Audientziak neurtzeko sistema
- Finantziario aukera berriak
- Ikus-entzunezkoen lege berria
- Pantailak euskaraz

Dirulaguntza deialdi berria

Elkartearen plangintza estrategikoaren lehen ildoak baliabideak handitzea da. Euskarazko komunikabideen sektoreak bai egunerokoan bai eta aurrera begirako erronkak gainditzeko ere baliabide premia handia du. Zentzu horretan, Hekimen elkartearen zeregin garrantzitsuenetariko bat baliabide horiek lortzeko jardutea da. Dakizuenetz, hilabeteak daramatzagu Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako erakunde publiko nagusiekin datozen hiru urteetarako dirulaguntza deialdia adostu nahian eta logikoa den bezala, Hekimenek ahalegin handia egin du deialdia hobetzeko.

Hedabideen mahaian, dirulaguntza deialdia lantzen ari den foroan, Hekimenek hainbat proposamen egin ditu egoera hobetzeari begira. Besteak beste honako hauek: poltsa era esanguratsuan handitzea, aurreko deialdian irriti, telebista eta digital hutsetan antzemandako hutsuneak gainditzeko neurriak hartzea, proiektu berriak dagokien diruarekin etortzea eta baliokidetzen ideia txertatzea berrikuntza prozesuak errazteko.

Poltsa zerbait handituko da baina ez bere garaian egindako kostu estandarren kalkulura iristeko moduan. Azpisektoreetan antzemandako hutsuneei dagokienez, irratien kasuan poltsa handituko da eta telebisten kasuan ere bai, baina oraindik ere benetako beharretara iritsi gabe, eta digital hutsetan kasuan ikusteko dago gehienak IKT deialdira bideratuz bere garaian antzemandako hutsuneak gainditzeko lortuko ote den. Azkenik, zenbait egitasmo berriarako dirua aurreikusi den arren, ez da argi gelditu aurrerantzean ere horrela izango den. Baliokidetzen gaiari dagokionez bai, neurri hori era egokian jasoko da deialdian eta horrek aukera interesgarriak eskainiko ditu euskarri berriak forgatzeko.

Hekimeneko zuzendaritzak Hedabideen mahaia bera eta bertan erakunde publikoekin deialdi berria lantzeko aukera izatea ongi baloratzen ditu, baina, era berean, egindako eskari nagusiak kontuan hartuz, emandako pausoak ez direla nahikoak baloratzen du.

Egindako eskari nagusiak kontuan hartuz, emandako pausoak ez dira nahikoak

Izan ere, poltsaren hazkundera benetako beharretatik eta 2019ko kostu estandarren kalkulutik urrun dago oraindik. HPSk bere deialdirako %5eko igoera proposatu du baina Foru Aldundietako aurre-

kontuetan, printzipioz, igoerarik ez da aurreikusten. Bestalde, komunikabide digital huts gehienak IKT deialdira bideratuz multzo horretan antzemandako hutsuneak gainditzeko baliabide gehiago egongo dela esan digute, baina ebazpenak iritsi arte ezingo da jakin aldaketa horrek hutsuneak gainditzeko balioko duen.

Era berean, Zuzendaritzak kezka agertu du deialdia maiztzean aurkeztea eta dirua uztailan banatzea aurreikusten delako, izan ere, atzerapen horrek likidezia arazo larriak eragin ditzake hainbat hedabidetan.



Laburbilduz eta HPSko ordezkarien esanak hona ekarriz ondorengo aldaketak aurreikusten dira HPSren deialdian: Aldaketa handiena digital hutsetan kasuan gertatuko da, gehienak IKT deialdira bideratuko dira aurreko deialdian gertatu ziren hutsuneak gainditzeko asmoz. Printzipioz aurreko deialdiko 3 irriti ere IKT deialdira pasatuko dituzte. Autofinantzaketa maila bost puntu jaitsiko da, berrietan %20era eta besteetan %25era. Irratietan 2.800 ordutik gora ekoizten dena merkeago ordainduko da (egitasmo bakar batek multzoko poltsa ia osoa bereganatu ez dezan). Telebistetan lantzeko puntua mantenduko dute baina zorrotz aztertuz. Aldizkari digitaletan gainerako digitalen irizpide berak hartuko dira kontuan, aurreko deialdian ez bezala. Sektoretik baliokidetzen inguruan egindako eskaera kontuan hartu da eta 22 artikuluan txertatu dute.

Aldundien deialdiei dagokienez, ez dugu informazio zehatzik baina HPS-ren deialdiko aldaketen ildotik joango direla esan digute. Bizkaiko deialdia jada argitaratu dute eta ez dago aldaketa handirik aurreko deialdiarekin alderatuz (gutxieneko ekoizpen baldintza batzuk malgutu dituzte, baliokidetzen ideia txertatu dute eta autofinantzaketa maila ere jaitsi dute). Gipuzkoako eta Arabako deialdiak otsailan zehar argitaratuko omen dira baina aurrez, HPS-k egin duen bezala, deialdi berria komunikabideei aurkezteko bilerak egin ditzaten eskatu dugu.


Berrikuntza

Urriaren 6an Orona Berrikuntza Parkean *“Euskal komunikabideak berrikuntzaren bidean”* izeneko jardunaldia antolatu zuen elkarteak. Bertan, Carmina Crusafon, Genís Roca eta Jordi Font i Morató lagun katalanek parte hartu zuten. Berrikuntza komunikabideetan nola ikusten duten kontatu ziguten sakontasun handiz.

Horietaz gain, Hekimenek bere zuzendaria den Igor Astibiaren eskutik, euskarazko komunikabideek berrikuntzari buruz duten ikusmoldea aurkeztu zuen.

Proiektu berrientzat baliabideak eskuratzen laguntzeko konpromisoa hartu zuen sailburuak

Jardunaldietan Kultura eta Hizkuntza Politika sailburua den Bingen Zupiriak hitza hartu zuen Eusko Jaurlaritzatik eta nagusiki bere sailetik komunikabideen berrikuntza prozesua nola ikusten duen jakinarazteko. Hitzaldian zehar, besteak beste, proiektu berrientzat baliabideak eskuratzen laguntzeko konpromisoa hartu zuen sailburuak.



Oro har jardunaldiaren balorazio ona egin da batez ere eta bereziki, goizeko saioena. Edukiez gain antolaketa ere oso ona izan dela azpimarratu da. Bazkideen partehartzea ere txukuna izan zela aipatu du Zuzendaritzak, ia bazkide guztiak bertan baitziren.

Bideoak laster aurkeztuko dugun elkartearen webgune berrian jarriko dira ikusgai, *“bazkideen txokoa”* izeneko atalean.

Jardunaldien ondotik, Hekimenek berrikuntzaren gaian sakontzen segitu du. Batzarrean onartu eta

Oronan aurkeztu zen berrikuntzaren inguruko planteamendua gehiago zehazteko asmoz, Idazkaritzak bigarren dokumentu bat landu du eta hori izan da azken zuzendaritza bileretan aztertu dena. Oro har, lan ona egin dela azpimarratu du Zuzendaritzak.

Dokumentu berri horretan, berrikuntza proiektuak hiru multzotan banatzea proposatzen da.

1.- Komunikabide bakoitzak garatu beharreko berrikuntza proiektuak nagusiki edukiak eraginkortasunez hedatzeko eta egokitzapen teknologikoak egiteko.

2.- Sektore osoarentzat onuragarriak diren proiektuak sortzeko edo zerbitzuak eskaintzeko.

3.- Elkarlanean garatzeko moduko proiektu komunikatibo berriak.

Bigarren dokumentu hau ixten denean, Hekimenen baitan gaia lantzeko eta hiru eremu horietako bakoitzean zeintzu egitasmo ikusten ditugun zehazteko batzorde tekniko bat abian jarriko da. Berrikuntza batzordea lehen aldiz otsailaren 16an bilduko da.

**Berrikuntza batzordea
otsailaren 16an
bilduko da lehen aldiz**

Kode deontologikoa

Kode deontologikoaren gaia bai Zuzendaritzan bai eta Euskarazko Hedabideen Mahaian ere zer esan handia sortu duen gaia da. Gaiaren lehen lanketa Hekimeni eskatu zitzaionez, Zuzendaritzak Irene Arraratsi eman zion kode deontologikoa idazteko ardura, alor horretan esperientzia duelako. Hilabete hauetan Hedabideen Mahaian kodearen bertsio desberdinak aztertu dira eta berriki azken idatzaldi bat aurkeztu da, aurrez elkarte Zuzendaritzak landu eta onartutakoa.



Bere garaian erakundeetatik egin ziren iradokizun batzuk onartu eta testuan txertatu dira, beste batzuk kontuan hartuz aldaketa batzuk egin dira eta azkenik puntu batzuetan aurreko testua mantendu da, egindako proposamenak onartu gabe. Hala ere, Hedabideen Mahaian azken bileran instituzioetako ordezkari batzuek azken bertsioa aztertzeko tarte handiagoa eskatu zuten eta ondorioz gaia ez da behin betiko itxi.

Zuzendaritzak hartua du gaia gehiago ez luzatzeko erabakia

Edozein kasutan, ez da aldaketarik aurreikusten edo ez behintzat sakoneko aldaketarik, izan ere, Hedabideen mahaian aldaketa gehiago ez onartzeko asmoa azaldu zuten Hekimeneko ordezkariak. Erakundeetatik egindako proposamen batzuk zehatzegiak eta komunikabide bakoitzari dagozkionak zirela argudiatu zuen elkarte ordezkariak eta horrexegatik ezin zirela horrelako kode orokor batean jaso, Alegia, Hekimeni ez dagokiola hain gai zehatzetan sartzea.

Gaiak agian joan etorriren bat gehiago egingo du baina Zuzendaritzak hartua du gaia gehiago ez luzatzeko erabakia.

5 milioiko laguntza

Covid-19aren ondorioak arintzeko 5 milioiko laguntza banatu du Eusko Jaurlaritzak komunikabide batzuen artean eta horrek haserre piztu du Hekimen osatzen duten komunikabideen artean. Egin duten banaketa onartezina dela eta lehenbailehen Jaurlaritzari bilera eskatzeko erabakia hartu zuen Zuzendaritzak. Horretaz gain, euskarazko komunikabideentzat ere COVID laguntzak eskatuz prentsa oharra plazaratu zuen Hekimenek.

Bilerarako hitzordua berehala eskaini zuten eta bilera hori Nekane Zeberio eta Bingen Zupiriarekin

Laguntza horiek euskarazko gainerako hedabideetara zabaltzeko eskatu dugu

egin zen. Banaketa horrela egitearen inguruko azalpenak eskatzeaz gain, laguntza horiek euskarazko gainerako komunikabideetara zabaltzeko eskatu zitzairen. Beren ezezkoaren aurrean beste bi eskari zehatz egin zitzaizkien: Batetik, deialdi berrian poltsa handitzea estaldura %80etik %100era pasatzeko moduan eta aurreko deialdian azaldu ziren hutsuneak konponduz (telebistak, irratiak eta digital hutsak) eta bestetik HPS-tik euskarazko komunikabideen berrikuntzarako partida berri bat sortzea.



Bileran lehen eskariari dagokionez, erabakia Jaurlaritzarena izan dela (goi mailan hartutakoa) azaldu zuten eta laguntzak ez duela Kultura sailarekin zerikusirik izan. Dirulaguntza deialdian estaldura %80tik %100era igotzeari dagokionez, gai hori HPSri dagokiela esan zuten eta hori dela gai hori buruz hitz egiteko bidea, Euskal Hedabideen Mahaian markoan. Eskaera hori orain arte bezala bide horretatik egin beharko dela.

Berrikuntzarako partidari dagokionez berriz, logikoena alderantzizko bidea dela azaldu zuten, alegia, lehenik egitasmoak aurkeztu eta ondoren finantzazioa bilatu. Beraiek prest daude Garapen ekonomikoaren sailean zein bestelako eremutan egitasmo horien finantzazioa bilatzen laguntzeko baina horretarako egitasmo zehatzak behar dituztela azaldu ziguten.

2022ko aurrekontuetan eta HPSren partiden artean euskarazko komunikabideen berrikuntzarako epigrafe bat jasotzeak bide bat irekiko lukeela azpimarratu diegu baina bidea alderantzizkoa dela mantendu zuten. Hori ikusirik, proiektu berriak aurkezten badizkiegu finantzazioa bilatuko dutela bermatzen diguten galdetu zitzaientzen, ideia argi eta garbi gera zedin, eta erantzuna baiezkoa izan zen.

Publizitate instituzionala

Gai hau ere Hedabideen mahaian lantzen ari gara baina erakunde publikoen jarrera nahiko itxia izaten ari da. Hasiera batean publizitate instituzionalaren datuak mahaira ekarriko zituztela esan bazuten ere, gerora datu horiek publikoak direla eta eskura daudela esan digute.



Horrez gai Hedabideen Mahaiak erakundeetatik publizitate agentziei ezartzen zaizkien baldintza edo irizpideetan zentratu beharko lukeela defendatu dute eta hurrengo bilerara horien inguruko azterketa baten emaitzak ekarriko dituztela esan.

Sektoretik irizpideak edota pleguak aztertzea egin beharreko lana dela ikusten da, baina, era berean, garrantzitsutzat jo da egun egiten den banaketaren inguruko datuak ezagutzea, besteak beste, ezagutza horrek banaketa egokiago baten aldeko argudioak emango dizkigulako, hau da, irizpide edota pleguetan hizkuntza irizpideak txertatzeko argudioak. Hori dela eta, azterketa hori geure kabuz egiten saiatuko gara.

Laburrean

Segidan azken hilabete hauetan elkartetik landu diren bestelako gai batzuen inguruko informazioa, hori bai, era laburragoan.

Audientziak neurtzeko sistema

Hedabideen mahaian landutako beste gai bat audientziak neurtzeko sistema izan da. Euskal Hedabideen Behategiari eskatu zitzaion eta hauek hiru ataletan oinarritutako lehen proposamen bat aurkeztu zioten HPSri (CIES-en inkesta lagin handiagoarekin, euskarazko hedabideen audientzia digitala (Hekimen Analytics-en antzeko sistema bat) eta komunikabideen balio soziala (ikerketa kualitatiboago batean oinarritua).


Arrazoi desberdinengatik (aurrekontua, joerak...) HPSk bere lehentasuna atal digitalean kokatu du, baina berriki Behategitik bigarren proposamen bat luzatu zaie (egokitua, maiztasun txikiagoarekin, merkeagoa...) hasierako proposamena berreskuratzen nahian, alegia, atal digitala ez ezik, beste biak ere kontuan hartuz.

Finantzazio aukera berriak

Urriaren 29an Andoaingo Bastero kulturgunean Zabala aholkularitzaren eskutik "Komunikabideetan berrikuntza garatzeko finantzazio aukerak European" saioa burutu genuen.

Bertan, Espainiako Estatuan eta European dauden aukerak aztertzeaz gain haiek eskuratzeko bete beharreko baldintzak aztertu genituen Blanca Rodriguezen eta Angel Etxeberriaren eskutik. Oso interesgarria izan zen eta beren aurkezpenetarako baliatu zituzten euskarrietan oso informazio interesgarria dago zentzu horretan. Merezi du dokumentu horiek aztertzeko tarte bat hartzeak.

Horrez gain, bi aurkezpenen bideoak laster aurkeztuko dugun elkartearen webgune berrian jarriko dira ikusgai, "bazkideen txokoa" izeneko atalean.



Espainiako ikus-entzunezkoen lege berria

Euskararen Kontseilutik bideratzen ari den dinamika jarraitu du Hekimenek berezko ekarpenak eginez eta elkarbanatuz. Lege proiektuari egindako ekarpenak txosten batean bildu ditu Hekimenek eta hori izan da Kontseiluari helarazi diona. Dokumentu horretan, besteak beste eta batez ere, ondorengo ideia hau azpimarratzen da:

“Hizkuntza aniztasuna gehiago errespetatzen duen proposamen bat egin behar da, nagusiki hizkuntza gutxiagotuek ikus-entzunezkoetan orain duten presentzia urria areagotzeko bidea eskainiz eta haien presentzia kuota bidez bermatuz.”

Ekarpenak. 2021eko apirila

Ikus-entzunezko komunikazioari buruzko lege orokorraren aurreproiektua



Euskaalgintzaren Kontseilua beste hizkuntza komunitateekin elkarlanean ari da alderdi desberdinei zuzenketak helarazi eta lege proposamenean hizkuntza gutxiagotuak kontuan hartuan izan daitezen baina, oro har, Espainiako Gobernuak alderdiek ez dituzte proposamenak onartu.

Dena dela, ikusteko dago legea zertan geratuko den, izan ere, aurrekontuen negoziaketen testuin

guruan gobernuak sostengatzen duen ERC-k neurri batzuen inguruko akordioa lortu zuela eman zuen ezagutzera.

Esandakoa, ikusteko dago azkenean legea zertan geratuko den baina itxura guztien arabera, onartzen dena onartzen dela, oso urrun geratuko da hizkuntza gutxiagotuetako hiztunon eskubideak bermatzeko helburutik.

Pantailak euskaraz

Azkenaldian streaming plataformetan eta orokorrean ikus-entzutezko pantaila desberdinetan euskarazko edukiak areagotzeko helburuz sortu den *Pantailak euskaraz* ekimenaren dinamika desberdinetan ere parte hartu dugu.

Ekimenaren aurkezpen agerraldian parte hartu genuen eta berriki manifestuaren aurkezpenean ere bai. Aldarrikapenekin bat egin da eta Zuzendaritzak abenduaren 4ko agerraldian parte hartzeko erabakia hartu zuen manifestua babestuz.



Zuzendaritzak manifestua babestu zuen eta zuzenketa txiki batzuk ere zizkion, besteak beste, Hmaika Telebista bezalako herri ekimeneko euskarazko telebistak babestu beharra azpimarratuz eta erdal telebistetan kuotak ezartzearen alde. Manifestua ondorengo loturan irakur daiteke:

<https://www.pantailakeuskaraz.eus/euskarazko-ikus-entzunezkoen-aldeko-manifestua/>

DATOZEN HITZORDUAK

Otsailaren 16an, 10:00etan > Berrikuntza Batzordea

Otsailaren 24an, 16:00etan > Itzulpen automatikoari buruzko hausnarketa saioa

Martxoaren 7an, 10:00etan > Hekimen Analytics-en balorazioa egiteko bilera

Martxoaren 25ean, 10:30ean > Hekimen elkartearen Batzar Orokorra